

## SAUNA ERABILTZEKO ARAUAK

### **80. artikulua.—Deskribapena**

Saunara bideratutako instalazioak dira.

### **81. artikulua.—Sarrera**

Sauna erabili aurretik saioaren prezioa ordaindu beharko da kiroldegiko atezaindegian, edo abonua erakutsi, zigilu-marka ipintzeko.

### **82. artikulua.—Araudi berezia**

a) Debekatuta dago erabiltzailearen gorputza saunako eserlekuak zuzenean ukitzen dituela egotea sauna barruan eserita edo etzanda egotean; horretarako, bi toaila erabiltzea gomendatzen da, bata saunan eserita edo etzanda egotean norbere gorputza instalazioarekin zuzenean ukitzen egotea saihesteko, eta bestea gorputza garbitu eta lehortzeko.

b) Sauna barruan eta dutxetan txankletekin ibiltzea gomendatzen da, eta, era berean, saunan sartu aurretik eta komuna erabili ondoren dutxatzea.

c) Erabat debekatuta dago sauna barruan bizarra moztea.

d) Debekatuta dago tentsioa behean izaten duten pertsonak edo osasun-arazoak dituztenek zerbitzu hau erabiltzea, beren gaitzerako kontraindikaturia delako.

e) Toki-arrazoiak direla eta, debekatuta dago saunaren barruan etzatea aldi berean hiru pertsona baino gehiago baldin badaude.

f) Erabat debekatuta dago saunaren barruan irakurtzea, mukiak kentzea, listua botatzea edo beste edozein behar fisiologiko egitea.

g) Erabiltzaileek hainbat zigorretan eror daitezkeela alde batera utzita, saunako material eta ekipamenduen erabilera desegokia arduradunak zigortzeko gai izango da, gutxienez eragindako kalteak ordaintzeko eskatuz.